

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3017

17/2016 DEKRETUA, ekainaren 16koa, Lehendakariarena, udalen ordezkariak Herri Dirubideen Euskal Kontseilurako izendatzekoa.

Herri Dirubideen Euskal Kontseilua erakundea Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen bidez sortu zen, zeinaren 28.2 artikuluan xedatzen baita Kontseilua sei kidek osatuko dutela, horietako hiru Gobernuak izendatuta eta beste hirurak foru-aldundiek bana izendatuta.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen azken xedapenetatik lehenengoaren 3. puntuaren bidez, 10. paragrafoa gehitu zaio azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluari. Honela dio xedapenak: «10.—... Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan udalen hiru ordezkari sartuko dira... Ordezkaritza bat egongo da lurralde historiko bakoitzetik, eta lehendakariak izendatuko ditu, ezarpen handiena duen udalen euskal elkarteak proposatuta. Toki-ordezkaritzaren izendapenean kasu egingo zaie, lehentasunez, lurralde-irizpideei, genero-irizpideari eta neurri ezberdineko udalen presentzia zaintzeari, halako moldez non udal-ordezkarien herena, gutxienez, 5.000 biztanletik beherako udalen kargu hautetsiak izan daitezzen».

Aipatutako apirilaren 7ko 2/2016 Legearen azken xedapenetatik bigarrenak bi hilabeteko epea ezartzen du, legea indarrean sartzeko denetik, 2016ko apirilaren 15etik, Euskadin ezarpen handiena duen udalerrien elkarteak Kontseilurako ordezkariak proposatzeko.

2016ko maiatzaren 26ko Aginduaren bitartez, Euskal Udalen Elkarteak izendatu da Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan ezarpen handiena duen elkarteak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 5. puntuari jarraikiz.

Horrela bada, Euskal Udalen Elkartearen (EUDEL) Batzorde Eragileak, 2016ko ekainaren 9ko batzarrean, Lehendakariari Herri Dirubideen Euskal Kontseilurako euskal udalen hiru ordezkari proposatzea erabaki du.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Herri Dirubideen Euskal Kontseiluko kide izendatzea, udalen ordezkari gisa:

- Josune Irabien Marigorta andrea, Amurrioko alkatea, Arabako Lurralde Historikotik.
- Imanol Landa Jauregi jauna, Getxoko alkatea, Bizkaiko Lurralde Historikotik.
- Eneko Maioz Ganboa jauna, Oresako alkatea, Gipuzkoako Lurralde Historikotik.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu hau sinatzen den egunetik egongo da indarrean.

2016ko uztailearen 7a, osteguna

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Argitara bedi dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, guztiek izan dezaten horren berri.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.